

# BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 2511

*AGINDUA, 2024ko maiatzaren 10ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak deklaratzeko dena.*

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak (indarrean Euskadiko Jar-duera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen aurka ez doan guztian) 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat baletoz, eta Dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzekotan.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hauxe

### EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin. Era berean, II. eranskinean agertzen diren eskatzaileen eskaerak ukatzea, bertan jasotzen diren arrazoietan oinarrituta.

Bigarrena.– Deklarazioak agindu hau argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honen aurka, administrazio-bidea agortzen duenez, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke kultura eta hizkuntza politikako sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hileko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 10a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2024ko maiatzaren 24a, ostirala

## I. ERANSKINA

## GOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZENDATUTAKOEN ZERRENDA

Abizenak, Izena	Esp. Zenbakia	Modalitatea	Kategoria
Arotzena Indo, Iker	1201/24/D	Atletismoa	Kirolaria
Briz Zamorano, Esther	1202/24/D	Arraunketa	Kirolaria
Cabang Tolentino, John Cristopher	1188/24/D	Atletismoa	Kirolaria
Dominguez San Sebastian, Yago	1190/24/D	Surfa	Kirolaria
Gomez Laespada, Lander	1204/24/D	Errugbia	Kirolaria
Gonzalez Etxabbarri, Janire	1187/24/D	Surfa	Kirolaria
Ibarretxe Conde, Oier	1186/24/D	Boxeoa	Kirolaria
Lasa Iturain, Keoni	1191/24/D	Surfa	Kirolaria
Lazcano Guimerans, Begoña	1185/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Legorburu Anso, Anton	1205/24/D	Errugbia	Kirolaria
Odriozola Frisch, Kai	1192/24/D	Surfa	Kirolaria
Sanchez Ortún, Garazi	1176/23/D	Surfa	Kirolaria
Arregui Altuna, Olatz	1195/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Arteta Gutierrez, Amaia	1207/24/D	Padela	Kirolaria
Azurmendi Moreno, Clara	1197/24/D	Badmintona	Kirolaria
Maayout Chajra, Majida	1203/24/D	Atletismoa	Kirolaria
Otaegi Garmendia, Leire	1200/24/D	Neguko Kirolak	Kirolaria
Setien Erro, Ania	1199/24/D	Badmintona	Kirolaria
Soares Berasaluce, Jose Luis	1181/24/D	Surfa	Kirolaria
Beobide Lertxundi, Aratz	1209/24/D	Mendia	Kirolaria
Estensoro Macicior, Alazne	1182/24/D	Futbola	Kirolaria
Garrido Malvar, Nahia	1184/24/D	Igeriketa	Kirolaria
Mintegui Rivera, Ander	1994/24/D	Neguko Kirola	Kirolaria
Maldonado Martin, Naroa	1196/24/D	Kirol egokitua	Kirolaria
Agirre Azpeitia, Naroa	1206/24/D	Euskal Pilota	Kirolaria
Gaminde Sertutxa, Enara	1178/24/D	Euskal pilota	Kirolaria
Cabezuelo Castillo, Pablo	173/23/T	Surfa	Entrenatzailea
Calleja Gonzalez, Julio	178/24/T	Triatloia	Entrenatzailea
Cid Pardo, Ramon	172/23/T	Atletismoa	Entrenatzailea
De la Fuente Lopetegui, Martin	175/24/T	Atletismoa	Entrenatzailea
Hermida Beneitez, Iago	174/23/T	Atletismoa	Entrenatzailea
Pousada Garcia Isaac	171/23/T	Igeriketa	Entrenatzailea
Ruiz de Aretxabaleta Perez, Xabier	176/24/T	Piraguismoa	Entrenatzailea
Tarnow Mendivil, Volker	182/24/T	Surfa	Entrenatzailea
Torrentegi Ronco, Elaia	180/24/T	Surfa	Entrenatzailea

## II. ERANZKINA

## GOI MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILEEN IZENDATU GABEKO ZERRENDA

Abizenak, Izena	Esp. Zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
Acasuso Zubizarreta, Sissel Paule	1177/23/D	Bela	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimenduetako bat. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurreko urtean. Munduko txapelketetan, maila absolutuan eta proba ez olinpikoan, lehen 16en artean egotea da lortu beharreko emaitza. Aurkeztutako emaitza 25. Postua da.
Beitia Astondoa, Iker	1183/24/D	Hipika	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimenduetako bat. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurreko urtean. Espainiako txapelketako emaitza aurkeztu du baina lehiatu zuen munduko txapelketako emaitza ez du aurtengo edo aurreko urtean lortu.
Echeverria Otaegui, Jon	1193/24/D	Piraguismo	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimenduetako bat. 2023ko Europako kayak surf txapelketa aurkeztu du, eta 2023ko Europako kayak surf txapelketan 6 herrialdek hartu zuten parte. Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako kirol-irizpide teknikoak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera: Kategoria absolutuan Kirol-modalitate olinpikoetako eta diziplina ez olinpikoen (B taldea) Europako txapelketako emaitza Ebaluazio Batzordeak baloratu ahal izateko, beharrezkoa izango da txapelketa horrek honako baldintza hauek betetzea: a) Dagokion Europako edo Nazioarteko Federazioak antolatua izatea. b) Programa olinpikoan sartuta ez dauden modalitateen B multzoko lehiaketan kasuan, gutxienez 8 herrialde ordezkaturik egotea.

2024ko maiatzaren 24a, ostirala

Abizenak, Izena	Esp. Zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoa
Lacunza Elizalde, Irati	1180/24/D	Urpeko Jarduerak	Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako kirol-irizpide teknikoak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera: baloratu beharreko lehiaketak eskaera egin duen urtekoak edo aurrekoak izan behar dute. Balioesteko aurkeztu duen emaitza 2022koa da.
Martiarena Elices, Maria	1208/24/D	Gimnastika	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimenduetako bat. Aurkezten duen lehiaketa 2023ko Europako aerobic txapelketa da. Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako kirol-irizpide teknikoak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren I. eranskinaren arabera: Kategoria absolutuan Kirol-modalitate olinpikoetako eta diziplina ez olinpikoen (B taldea) Europako txapelketako emaitza Ebaluazio Batzordeak baloratu ahal izateko, beharrezkoa izango da txapelketa horrek honako baldintza hauek betetzea: a) Dagokion Europako edo Nazioarteko Federazioak antolatua izatea. b) Programa olinpikoan sartuta ez dauden modalitateen B multzoko lehiaketen kasuan, gutxienez 8 herrialde ordezkaturak egotea. 2023ko Europako Aerobik Txapelketan 5 herrialdek hartu zuten parte.
Romero Villanueva, Jaime	1198/24/D	Txirrindularitza	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimenduetako bat. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurreko urtean. 2024ko Espainiako txapelketako emaitza aurkeztu du.
Serrano Ruiz, Ibai	1189/24/D	Atletismoa	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimenduetako bat. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurreko urtean. Europako txapelketetan, absolutuaren aurreko mailan (C multzoa) eta taldekako proba olinpikoan, ezinbestekoa da lehenengo 4en artean egotea da. 6.ak geratu dira.

2024ko maiatzaren 24a, ostirala

Abizenak, Izena	Esp. Zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
Sanchez Goyogana, Ane	1179/24/D	Arrauna	Ez ditu betetzen Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian eskatzen diren kirol-bikaintasuneko irizpideak. Urte berean honako hiru lehiaketa hauek irabaztea: Euskotren ligan, Kontxako estropadan eta Espainiako Traineru Txapelketan
Fernandez Álvarez, Gorka	177/24/T	Mahai Tenisa	Ez du 6.1.d) artikulua betetzen. Honako titulu akademiko hauetakoren bat egiaztatzea: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatura, edo Kirol Errendimenduko Unibertsitate Masterra, edo araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako goi-mailako teknikariaren kirol-titulazioa, edo aurreko edozein ordezkatzan duen titulazio akademikoa. I. mailako titulua. Beharrezkoa da goi-mailako teknikariaren kirol-titulazioa izatea, III. maila.
Lameirinhas Mutuberria, Ekaitz	179/24/T	Kirol egokitua	Ez du 6.1.d) artikulua betetzen. Honako titulu akademiko hauetakoren bat egiaztatzea: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatura, edo Kirol Errendimenduko Unibertsitate Masterra, edo araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako goi-mailako teknikariaren kirol-titulazioa, edo aurreko edozein ordezkatzan duen titulazio akademikoa. Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapeneko Teknikari Titulua aurkeztu du.
Izaguirre Garcia, Emaitz	181/24/T	Txirrindularitza	Ez du 6.1.d) artikulua betetzen. Honako titulu akademiko hauetakoren bat egiaztatzea: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatura, edo Kirol Errendimenduko Unibertsitate Masterra, edo araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako goi-mailako teknikariaren kirol-titulazioa, edo aurreko edozein ordezkatzan duen titulazio akademikoa. Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapeneko Teknikari Titulua aurkeztu du.
Rodriguez San Jose, Jorge	51/24/J	Txirrindularitza	Ez du 7.1.d) artikulua betetzen. Eskatzailea nazioarteko epailea dela eta nazioarteko lehiaketa ofizialetan benetan parte hartutakoa dela egiaztatzea, dagokion nazioarteko federazioak edo nazioarteko liga profesionalak egindako ziurtagiri bidez. Espainiako Txirrindularitza Federazioaren ziurtagiria aurkeztu du, UCItem eliteko komisario nazionala dela egiaztatzen duena, baina ez nazioarte mailakoa.

2024ko maiatzaren 24a, ostirala

Abizenak, Izena	Esp. Zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoa
Ugalde Retegui, M <sup>a</sup> Asunción	50/24/J	Golfa	Ez du 7.1.d) artikulua betetzen. Eskatzailea nazioarteko epailea dela eta nazioarteko lehiaketa ofizialetan benetan parte hartu duela egiaztatzea, dagokion nazioarteko federazioak edo nazioarteko liga profesionalak egindako ziurtagiri bidez. Espainiako Golf Federazioaren ziurtagiria aurkeztu du, arbitro-epaile nazionala dela egiaztatzen duena, baina ez nazioartekoa.